

Batuaz honaindikoak

Irene Arrarats

Euskaldunon Egunkaria-ko eta egun Berria-ko euskara arduraduna eta estilo liburuaren zuzendaria

Arian ari

Katalanak Pompeu Fabraren urtea ospatzen ari dira aurten, 150 urte bete baitira katalanaren ortografia, gramatika eta lexikoa arautu zituen hizkuntzalari bartzelonarra jaio zela. Pompeu Fabrak garbi zeukan katalanaren batasuna eta estandarizazioa ezinbestekoak zirela eskualde bateko eta besteko katalanak arlo guztietan katalan izango baziren, eta ez dirudi oraingo Katalunian duda-izpirik dutenik horretaz: haren lorratzean ez ezik, hark *llengua nacional* izendaturikoa finkatzeko lantegi horren gorazarrean ere badabiltza eta. Han eta hemen hitzaldiak eta mahai-inguruak antolatu, eta webgune monografiko bat prestatu dute, *Ruta Pompeu Fabra* izeneko kultur ibilbide bat, sarean eskuratzeko moduko irakasmaterial askotarikoa, *irakurketa erraza* deritzon kontzeptuaren arabera onduriko dibulgazio-lanak, komikiak... den-dena, katalan estandarraren oinarriak jarri zituen omentzeko eta haren lana ezagutarazteko, Institut d'Estudis Catalansek, Pompeu Fabra unibertsitateak, Generalitateko Kultura Sailak eta beste zenbait erakunde eta elkarte larrik zein xehek bultzaturik.

Horren aldean, Euskaltzaindiaren mendeurreneko jardunaldiak irailean abiatu bitartean, Euskal Herrian oraingoz oharkabean pasatzen ari da aurten 50 urte bete direla euskara batuaren

sorrera-urte ofizialtzat jo izan den 1968 hartatik. Ez gabiltza, ezta hurrik eman ere, katalanak bezain aurreratuak estandarizazioan, eta are gutxiago normalizazioan. Fabrak 1913an plazaratu zituen arau ortografikoak, 1918an gramatika, eta 1932an hiztegia. Koldo Mitxelena, berriz, 1968an idatzi zuen 'Ortografia', lehendik Txillardegik eta Gabriel Arestik urratzen hasia zuten bide berean;¹ 2011koa da EGLU sortako azken gramatika-liburua, eta 2012an eman zuen argitara Euskaltzaindiak hiztegi definizioduna, *Euskaltzaindiaren hiztegia* izenekoa, lehengo hitz-zerrendak definizioz eta adibidez jantzirik.

Eta, hala ere, ezin esan motel gabiltzanik, euskararen estandarizazioa bukatuxea baitugu... oro har; alegia, erabilera normalizaturik gabeko hizkuntza minorizatu batek buka dezakeen heinean, zeren gauza bat baita kontu asko arauturik egotea, eta beste bat, bestelakoa guztiz, eredu estandarra guztiz sustraitzea eta mamitzea, dagozkion alorretan, erabiltzaileak eroso sentitzeraino. Prozesua berandukoa izan da, oso-oso bizkor egina, *in extremis*: mintzaira hegemonikoetan hitzun-komunitate jendetsuak, diru-parrastadek eta gainerako armada konbentzionalek mendeetan eginiko bide guztia ibili behar izan du euskarak 50 urtean, berandu baino lehen, aurreko eta oraingo zokoratze, debeku eta mespretxu guztien ondorio ia hilgarrien gaintetik, eta noiz bukatuxea edukiko, eta aro linguistiko berri batek abaila ikaragarria hartu duen honetan, Interneten eta komunikazio digitalaren garaiotan. Haizerik ez alde.

Bai, ordea, ahalegin eta lan itzela. Eta batasunaren aldeko batasun harrigarria ere bai, geroztik kultura sortzen eta sorberritzen aritu direnen artean; berehalaxe mamitua, gainera. Diasistema baten barrunbeetan arakatu, haren zoroan sistema bat aurkitu,² eta hizkuntza-aldaera formala behar duten alor guztietara eraman: irakaskuntza, administrazioa, komunikabideak, letrak eta zientziak... Adibide bat baino ez: *Elhuyar* zientzia-dibulgazioko aldizkaria 1974an hasi ziren argitaratzen, eta batuan, nola bestela.

Baina handik gutxira gaur: mirari hori obratu eta gero, euskaraz dakitenen artean erabilera urritzen ari da azkenaldian

esparru batzuetan, eta adierazkortasuna histen, estandarizazioa eta normalizazioa aurrera joanagatik. Badago zertaz gogoetatu eta zertan lan egin: autoflagelaziorik ez, baina bertan goxo geratu ere ez.

... ezarian ezin

Oharkabeen: halaxe ikasten dira nor diren hizkuntzak, zein bere lurraldean. Ia konturatu ere egin gabe, ezarian... Hori da ikasteko modurik onena, Euskal Herriko herritar gehienontzat ezinezkoa, beste bi hizkuntza baitira hegemonikoak eta nonahikoak euskararen herrian eta, ondorioz, bai euskaldun askoren (gehienen?) gogoan ere. Bestela bezala ikasten dute erdaraz arnaguneetako haurrek ere, goian aipaturiko *ahalegin eta lan itzel* horren beharrik batere gabe, erdarek ez baitute alferrik martxan beren makineria guztia, eta haiek bai iskiluak, beren batuaren irismena segurtatzeko: bideo-joko, marrazki bizidun, podcast, telesail, youtuber, websail eta zer ez. Dena dute aisialdi, dena denbora-pasa, dena zaletasun, dena atsegin-iturri... Eta beste aldean, askorentzat euskarazko uhar-te bakar, eskola: irakaskuntzak asko dezake, jakina, baina ez dena, Bernardo Atxagak aipatu ohi duen erresonantzia-kaxarik gabe. Esan eta esan, eta errepika, eta errepika, eta errepika: non dago euskal hitzek, euskal esamoldeek eta, bere luze-zabalean eta labur-estuan, euskal kulturak behar duten erresonantzia-kaxa? Oihartzunaren oihartzun amaigabe horiek gabe, non ikasiko dugu nola esaten den euskaraz, demagun, *con premeditación y alevosía* / *avec préméditation / un guet-apens*, baina ahalegin berezirik egin gabe ahal dela, terminologia-masterrik osatu gabe eta zuzenbide-lizentziaduna izan gabe? Pentsa dezagun nola ikasi dugun hori erdaraz,

Non dago euskal hitzek,
euskal esamoldeek eta,
bere luze-zabalean eta
labur-estuan, euskal
kulturak behar duten
erresonantzia-kaxa?

hain aise, ikasten ari ginela konturatu ere egin gabe. Arestiko *nola esaten den euskaraz* horretan dago koska: ez baita *esaten...* Behar izanez gero, bakoitzak asma dezake, noski: erre-sonantzia-kaxarik gabe, itzultzaile gara denok, hiztun soil eta arrunt-marrunt izan ordez, eta beti hutsetik hasten gara, eta ia hutsean segitzen, ordain bakar batu estandarrik gabe... eta suertez ordainik baldin badago –suertez baino gehiago, hizte-gigile, terminologo eta espezialisten lanari esker–, datu-baseetan *bizi* da, hiztegieta, eta inoiz testu batean topatuz gero... bada, arrotza, artifiziala, plastikozkoa omen.

Ez dago dudarik, noski, batua dela euskararen aldaera estandarra. Beste kontu bat da behar bezain argi ote dagoen zer eta zertarako den batua, zer eta zertarako euskararen beste aldaerak. Eta prest ote gauden, prestatu ote garen eta prestatu ote gaituzten aldaera bakoitza bere tokian senez eta geurez ari garen ustean erabiltzeko, beste hizkuntzekin egi-ten den bezala, eroso.

Bistan da: estandarizazioaren alderdi *teknikoa* bukatzea, horixe izan da bere zailean errazena.

Plastikoa

Zernahi hizkuntzaren estandarra, sortzez eta definizioz, aldaera artifiziala da. Berezkoa du plastikozkoa izatea, eta erre-sonantzia-kaxak ematen dio *natural*-antza, *artifizialki*, gizartean egiten den ia guztia artifizialki egiten den gisa berean. Naturalizazio horren bidez, modua jartzen da hizkuntza guztiz zatikatu ez dezaten haren barneko indar zen-trifugoek, hiztunek elkar ezin ulertzeraino zatikatu ere. Eta horixe izan da euskara batuaren helburu eta lorpenetariko bat: hizkerak eta euskalkiak elkarrengana hurbiltzea, gero eta urruntzenago ari baitziren aspaldiko mendeetan. *Greba* zer den ikasi, *huelga* ahaztu gabe; *ados* zer den ikasi, *kon-forme* ahaztu gabe; *azoka* zer den ikasi, *merkatu* edo *feria* ahaztu gabe... Bere mestizoan, batuak nazional bilakatzen du tokian tokikoa.

Orduan, zer kabitzen da batuan? Bada, euskarazko den-dena, guztia eta oro, bai hitz eta bai joskera: zernahi eta zergu-
ra, irizpide ortografiko eta morfologiko batzuen barrenean, eta aditz-paradigma jakin batez. Nork berea *baturatu* behar, ordea, besteren zain egon gabe... Badira urte batzuk Koldo Zuazok *tokiko batuak* kontzeptu arrazoizko eta soila bezain indartsua plazaratu zuela (Zuazo 2005, 237-240): alegia, ez dela estrategia txarra nork bere hizkeran oinarrituriko batua egitea, hasteko eta tokian tokiko komunikaziorako, baina baita gero ere, exotismo bila ibili gabe, non eta bat ez den estilista fina eta idazle aparta. Azken batean, gure neurriko batua: dakigunetik ez dakigunera, biderik zelaienetik.

Norako eta norentzat ari garen, bada, hori kontuan harturik moldatu mintzoa edo idazkera. Horixe egiten dute bertsolari-
rik, espanturik gabe, bertatik bertarako komunikazioaren aztiak direnez gero: ez baitute berdin kantatzen Markinako bertso-afari batean, Urepeleko bertso-saio musikatu batean edo BECeko finalean. Tolosakoak *alubias* dira gaztelaniaz, eta inori ez zaio burutik pasatu ere egiten *frijoles* deitzea, Tolosan behintzat. Euskaraz ere beste hainbeste: alferrik eskatuko diogu naturaltasuna batuari, esaterako Bizkaian Bizkaiko euskaldunentzat eginiko argitalpen batean *oro* gora eta *oro* behera jarduten badugu, geure ez dugun guztia batuagoa delakoan, hortik segitzen baita batua plastiko koloregabea eta arrotza iruditzea irakurleari luze gabe eta erremediorik gabe, kolore guztietako jantzia izan beharrean. Komunikatzaileen abezea da: hartzaileengana egokitu, haiek zeuretzeko. Euskaraz diharduten profesionalek ezin bestela jokatu: irakurle/entzule/ikusleen aldera makurtze hori ez da kortesia hutsa, hainbat gutxiago filologia-erakustaldia, baizik eta eraginkor eta efikaz jokatzea, egitate soziolinguistikoa kontuan harturik, munduan bizkor dabilizan hizkuntza guztietan egin ohi den bezala.

Fikzioaren naturaltasuna ere lantzearen poderioz lortu ohi da, eta ez kolpetik *atera bezalaxe* eginez. Fikzioaren fikzioa sinesgarri izango bada, ezinbestekoa da hizkera zaintzea, pertsonaia bakoitzari eta egoera bakoitzari dagozkien

erregistroak moldatzea. Herri eta etxe berean hazitako bi anaia ezin dira izan bata bizkaieraduna eta bestea gipuzkeraduna, aktoreak halakoak izanagatik. Horregatik da guztiz txalotzekoa, esaterako, *Errementari* filmean hizkerak antzertzeko eginiko saioa, eta guztiz adierazgarria halako ikus-

Euskarari egiten
zaizkion eskakizunetan
bat gailentzen da
nabarmen, bere
bakanean eta xelebrean:
naturaltasunaren izenean
bazter ditzala bere
tradizio berez koskorrean
landu dituen estrategia
komunikatibo oro

mina piztu izana. Koherentzia behar baita, ez hartzaileekin bakarrik: baita pertsonaiekin eta istorioekin ere. Horra hor paradoxa: hizkerak asmatu, egiantza emateko.

Eta, nola ez, plastikoetan plastikoena: estandar idatzia. Ahozkoaren aldean, ordea, idatzia beti da motxa, partiturarik eta imintziorik gabea... hizkuntza guztietan, ala?³ Batek leitzen ikasten duenetik antonomasiar *el periódico* edo *le journal* egunkari jakin batekin

identifikatu arte, zenbat irakurraldi behar dira, esaterako, *El Diario Vasco*-ren, *El Correo*-ren edo *Sud-Ouest*-en polimeroa natural-natural metabolizatzen? Ala euskarari bakarrik eskatzen diogu etxekoa baino etxekoagoa izatea testuinguru eta euskarri guztietan, eta erregistro bakar batean ematea munduaren berri, alegia, norberak *esango* lukeen tankeran?

Badago, han eta hemen barreiaturik, joera bat txit euskal-garbia, euskarari –bereziki euskara batuari– beste hizkuntzei eskatzen ez zaiena eskatzeko, hala nola beti edder eta goxo agertzea, baita inflazioari buruzko testu hotz lehor batean ere, esaterako, nahiz eta zernahi erdal baliokide bezain hotz lehor izan, eta ez gehiago. Euskarari egiten zaizkion eskakizunetan bat gailentzen da nabarmen, bere bakanean eta xelebrean: *naturaltasunaren* izenean (!) bazter ditzala bere tradizio berez koskorrean landu dituen estrategia komunikatiboak oro, eta lehenets ditzala aspalditik sustraituriko

aurreiritzi linguistiko batzuk. Hona hemen klasikoetan klasi-koenetako batzuk, aldi eta alde guztietako ebidentzia ahozko eta idatzizkoen kontrakoak, baina mila bider errepikatuak: aditza atzean doa euskaraz; *zeren, non, zein, ezen* eta halakoak ez dira euskara, *ez* zaizkit gustatzen, inork ez du halakorik esaten, eta hori erabiltzea zatarra da; halako hitza ez da euskara, nola izango da ba, erdaraz ere hala esaten da-eta; esaldi laburrak baino ezin dira egin euskaraz; komek traba egiten dute; euskaraz ez dago biraorik...

Letania triste horrek pobreago egin du mendeetako historia glotozida are tristeago batek pobretua duena. Bere buruari halakoak ukatzen dizkionak kulturaren lur alor abar batzuk ukatzen dizkio. Bada garaia euskarari bere baliabide guztiak itzultzeko, eta, behar izanez gero, berriak emateko, beti geure buruari kentzen ibiltzeari utzita. Batuak ere direnak eta ez direnak behar ditu, zein bere testuinguruan, erregistroan, estiloan, testu-motan. Ezertxo ere ez sobran, aurrejuzguak izan ezik. Beste hizkuntzek bezalaxeko plastikoa behar dugu, plastiko bene-benetakoa.

Begi, aho, belarri

Jatorrismo zuri horren kaiolatik ihes egin, noranahi iristeko: batua ez baita eredu monolitiko doinubakar bat. Estandarizazioaren hasmentak idatziari begira egin ziren, bai, batez ere irakaskuntzarako, eta halaxe adierazi zuen Mitxelena berak 'Ortografia'-n.⁴ Geroxeago, Villasantek ere garbi adierazi zuen behin baino gehiagotan: «... bego hau garbi, notatzekoa baita: hizkera batuak, berez eta lehendabizikorik, hizkera idatziak dira, nahiz eta gero, gutiago edo gehiago, mintzatzeko ere erabiltzen diren». Harako *gutiago* hura Villasantek espero baino askoz *gehiago* da, ordea: mota guztietako ikus-entzunezkoek estandarren parte garrantzizko bihurtu dute ahozkoa ere. Estandarra, aspaldi, ez da eredu literarioa bakarrik (Fabrak *llengua literària* deitzen zion katalan batuari), baizik eta erregistro guztiak landu behar dituen aldaera bat. Lehen,

idatzia erregistro formalarekin lotzen zen batik bat, eta ahozkoa lagunartekoarekin, baina gauzak nahasiagoak dira orain. Whatsappen eta Twitterren, esaterako, asko idazten da lagunarteko erregistroan, baita batuan ere, eta irrati-telebistetan asko hitz egiten da erregistro formalean. Gaur egun, modu guztietan gurutzatzen dira hizkera-mailak eta euskarriak. Honetara ezkerro, batuak balio behar du, eta balio du, Emily Brontëren *Gailur ekaiztsuak* itzultzeko bezala *The Wire* tele-saila euskaratzeko ere. Aurreiritzirik gabeko ikuslerik exijenteenek aspaldi eman zieten kalitate-ziurtagiririk zinezkoena euskarara bikoizturiko marrazki bizidunei.

Askotariko estandar nazionala zorrozten segitzeko, jakina, gure ahozkoak eta gure idatziak bakeak egin behar dituzte, jakinik ez direla iritsi planeta banatatik, baizik eta sistema linguistiko berekoak direla, elkarren osagarri, gure osagarri. Hala, modua egin behar dugu, esaterako, uler dezagun batura ekarri behar dela euskaldun peto-peto batek herri-mailako erregistroan elkarrizketa batean kazetariari esandakoa –demagun: «Edadearekin, *bajatzen* ari da»–, baina jakinik zein den esateko modu horren kolorea eta noiz den pertinentea eta noiz ez. Ahozkoaren eta idatzizkoaren arteko harreman gurean ozpin samarraz ari garelarik, gaizki ez Blas de Oteroren harako hura gogoan izatea beti: «Ez da idatzi behar, ez, hizketan egiten den bezala, baina ez da komeni, orobat, hizketan egiten ez den bezala idaztea».⁵

Filologia ematen du, edo, onenean, literatura, baina soziolinguistika da muin-muinean: zentzumen bakarreko hiztunak garen ala zentzumen guztiak baliatzen ditugun; nolako hiztun-komunitatea garen eta nolakoa izan nahi dugun; orain batere modakoa ez den tankera batean esanda, zer herri-mota izan nahi dugun, herria izan nahi ote dugun aurrerantzean.

Gure euskaltasunaren norainokoak

Orain dela hogeitaka urte, amak, Franco txikitatik ezagututako euskaldun erdaraz eskolatua izanik, *Euskaldunon*

Egunkaria-ko titulu bati begira, galdetu zidan ea zer esan nahi zuen *ados* hitzak. «Konforme», erantzun nik. Eta hark: «Orduan, zergatik ez duzue *konforme* eskribitzen?». Egunero-egunero euskal prentsa irakurri –*Egunkaria* lehen eta *Berria* orain–, egunero-egunero *Argia*-ren egutegiko jakingarriak, pasadizoak eta beste leitu, eta, orain, amak *konforme* esaten segitzen du, baina badaki zer den *ados* ere. Euskara batuan idatziriko prentsa nazionalak eta bere gogoak itzuli diote eskola frankistak kendu ziona.

Galdera hura datorkit gogora inor *euskaldun zahar, euskaldun berri, hiztun berri*-ka hastean... Zein kamutsak kontzeptu horiek gure euskaltasuna definitzeko, zein estatikoak eta geldoak, aditzera ematen baitute nondik hasten garen, baina ez, ordea, nora iritsi garen. Hortxe dugu, jakina, *euskaldun oso*⁶ ere, baina estandarizazioari nola, halaxe gertatzen zaio euskaldun osoetan osoenari ere: ezin dela izan goitik beherakoa eta ezker-eskuinekoa, besteak beste erresonantzia-kaxarik gabe ari garelako, dauzkagun bozgorailu bakan eta bikainak gorabehera. Batuak emana digu, bai, euskaldun oso izateko tresna, baina norabide bakarreko elebitasunak,⁷ berriz, erdaldun oso eta eroso bilakatzen gaitu, euriak blaitzen gaituen bezain aise. Ondorioa: egiteko gai den zernahi euskaraz egiteko bidean, norberak daki tarteko zer helmugatan gelditzen den, haize kontra ibiltzeaz nekaturik.

Alde horretatik, batuak ispilu bat jartzen digu aurrean, eta gure euskaltasunaren neurria islatzen egunero-egunero.

Ea etxean eta lagunartean aritzeko bakarrik garen euskaldun, eta gainerakoan euskalgabe; funtsean, ea erdara batuetan egiten dugun euskara batuan egin daitekeena, batez ere irakaskuntza-sistemaren derrigortasunetik kanpo... eta ea

Batuak emana digu euskaldun oso izateko tresna, baina norabide bakarreko elebitasunak, berriz, erdaldun oso eta eroso bilakatzen gaitu, euriak blaitzen gaituen bezain aise

zintzo jokatzeko ari garen geure buruarekin: ea ez ote diogun gehiegi eskatu eskolari, lagunarteko hizkera eta gazte-argota sortzeko gai balitz bezala, esaterako, nahiz eta EiTb ez jarri horren zerbitzuan; ea ez ote dugun geure burua ezinago euskalduntzat jo, baina erdarak lehenetsita kultura idatziko esparruetarako, eta, okerragoa dena, gure ezak eta ezinak batuari egotzita, estandarra egitea lantegi kolektibo bat ez balitz bezala... Maileguan hartzeko modukoa da Joxe Austin Arrieta Ugartetxeak aspaldi, 1997ko apirilaren 4ko *Euskaldunon Egunkaria*-n, plazaratu zuen irudi hau, gaur-gaurkoa guztiz: euskaldun osabeharra.

Baina ez naiz *euskaldun osoa*, lehenago nioen bezala. Ez. Euskaldun osabeharra naiz. Denok garela uste dudana bezain osabeharra. Ezin bainaiz (edo ezin baitut; ikusten *maila* honetan ere?, nola esan behar da?...), euskaraz bizi. Osoki bizi, esan nahi dut. Beraz, ez naiz euskaldun osoa.

Osoki ez baizik *natural* bizitzea da, ordea, jatorkeriaren jantzi berria, oraingo garbizalekeria berbaberritua: lehen, jator eta garbi behar; orain, berriz, natural. Mauka eta pagotxa galanta, ezer eskatu gabe edozer zuritzen dizuna. Eta zer ote da batua ez bezala berez-berez erabiltzen omen den hizkera hori? Bada, uste baino gehiagotan, esentzialismo bitxi baten tresna, euskaltasun osoaren kontrako harri bat, euskalkien izenean jaurtikia –eta, formalki, tokiko hizkeratzat pasatu nahi izaten den nahas-mahas bat–. Ustezko naturaltasunaren sasi-diskurtso horrek betikotu egiten du hegemonia, hegemonikoa baitago naturalizatua. Hots, euskara batuari bere esparru bat ukatzen zaion bakoitzean, toki hori ez zaio ematen beste euskara-modu bati: erdara batuei ematen zaie opari.

Horren ondorioak? Ba, honatx bat, larria: euskarara (ezen ez erdaretara) itzuliriko guztiaren kontrako aurreiritzia, zenbait batuari dion mespretxu jatorristikoarekin batera agertu ohi dena. Hala, batek baino gehiagok *berez* gauza txartzat hartzen du itzulpena izate hutsa... itzulpen esplizitua, jakina,

zeren, hizkuntza minorizatu baina bizinahia izanik, euskaraz sorturiko guzti-guztian etengabe itzultzen baitira euskal mundutik kanpoko beste mundu guztiak. Eta, halaxe, orotarikoa dugu itzuli beharra: itzulpen konbentzional eta puskaz urriagoekin batean, horra hor itzulpen intrakraneala, Juan Garziaren hitzekin esanda.⁸ Noraino irits liteke, bestela, norberaren mundua, euskaraturiko guztiari uko eginez gero... Bada, erdararaino, bistan denez. Ermitaua bezain bakartuago bizi ezean, ez dago ihesbiderik: bestea geuretu, edo geureaz beste egin.⁹

Itzultzaileak geure egiten du, ezinbestean, parean duen horixe: ezin da koldarra izan, ezin dio ihes egin jatorrizkoari, huraxe eman behar baitu alde edo moldez, euskal idazleak ez bezala, zeinak aukerakoa duen hau edo bestea ez aipatzea, baldin eta iruditzen bazaio testua hondatuko diola normalizatu gabeko hitz edo termino baten bakantasunak edo artifizialtasunak. Itzultzaileak, alde horretatik, hautsi egiten ditu hizkuntzaren mugak.

Aurreiritzirik gabe begiraturaz gero, argi dago idazle onekin batean itzultzaile onek erakutsia dutela noraino irits daitekeen euskara –eta, beraz, euskara batua–, frogatua baitute nazioarteko estandarrean ari daitekeela, Mitxelenak aipatu zuen molde hartan: «Egungo prosa, gaiak bereizten ez duenean, ez da hizkuntza batekoa eta batena, nazio-artekoa baizik: B.L. Whorf-ek ‘standard average European’ deitu zuena» (‘Ortografia’). Molly Bloomek, Dalloway andereak eta Hermione Grangerrek ederki egiten dute euskaraz. Ahaleginak ahalegin eta fruituak fruitu, ordea, gutxi da orain arte itzulirikoa, Anjel Lertxundik berak berriki azpimarratu duen bezala:¹⁰ gutxi literatura eta saiakerak, eta are gutxiago ikus-entzunezkoak. Goi-literaturan aspaldi egiten diren itzulpen bikain eta ezinbestekoen ondoan, bikaintasun (komunikatibo) hori bera hil edo bizikoa zaigu gainerako zera lurtarrago guztietan ere, ohartu orduko ez zerurako, ez lurrerako eta ez pantailarako geratu nahi ez badugu behintzat: ondo planifikatu behar da zer euskaratu, itzulanean nekea bezainbestekoa izan dadin

gero irakurle/ikusle/entzuleen artean izango duen eraginaren uhina; eta horretarako baliabideak jarri, halako lanak kalitate-berme guztiarekin egin daitezten, eta ez profesionalen eta ez-profesionalen borondatearen eta astiaren arabera. Bernardo Atxagak eginak ditu galde-eskeak:

Itzulpenarena estatu auzi bat da: behar luke aparteko kontseilari-tza bat, eta behar bezala antolatzeko plan orokor bat. Eta azpigai bat litzateke nora bideratuko ditugun itzulpenaren indarrak: izango ditugu udaletxe eta bulego burokratikoetan urrea hauts bihurtzen? Edo jarriko ditugu, esate baterako, Wikipedia itzultzen?¹¹

Salbuespen-egoera

Eta, bitartean, euskara batu eta bereiz guztiak salbuespen dira: oasi bat, erdal komunikabideek eta bestelako fikzio-ma-

Zenbat euskal telebista
behar dira euskarazko
esamolde berri baina
hala ere burujabe
bat zabaldu dadin
hiztun-komunitatean?
Nork egingo du
erresonantzia-kaxak gure
ordez egiten ez duena?

kinek inguratua, edo, hobeto esanda, setiatua. Halaxe, muin gotor horretan idazle asko ditugu, baina konformidadean irakurle gutxi; sortzaile asko, baina konformidadean sorkari anonimo gutxi; esamolde berri gutxi, euskaratik beretik ernaturik, ezeren kopia izan gabe. Anonimoki ezer gutxi asmatzen dugu, erdararen aldakia ez denik. Jostalari eta zirtoka sortzen dugunean, hala nola trinkotzaindiari esker zabal-

duriko *damolat*, *dizerdit* eta abar trinko hori guztia, euskarak ez du aski bizi-indar *badamolat* asma dezagun, *noa* ez baizik *banoa* esaten dugun bezain oharkabea.

Zenbat euskal telebista behar dira euskarazko esamolde berri baina hala ere burujabe bat zabaldu dadin hiztun-komunitatean? Nork egingo du erresonantzia-kaxak gure ordez egiten ez duena? Hizkuntza-politikek erresonantzia-kaxa

indartzeko egiten ez dutena hitzun soilak egin behar du, militantziaz, atxikimendu sentimentalez?

Harkaitz Canok hauxe bota zuen 2017an mahai-inguru batean, Bilbon:

Kultura txikiek daukagun tragedia da ezin garela ekibokatu, hau da, ezin diogula geure buruari permititu liburu txarrik idaztea, ez publikatzea, ez itzultzea. Eta horrek jartzen dizu autoexijentzia maila bat inhumanoa.

Eta inhumanoena, zera: salbuespen-egoera honek sortzailerari bezainbeste eskatzen diola hitzun soilari kale egin ez dezala. 🗣️

Oharrak

1. Honela dio Ibon Sarasolak, *Bitakora kaiera*-n: «Azpimarratu nahi dut Txillardegiri zor diogula, azken batean, egungo euskara batuaren miraria: Txillardegiren eraginik gabe ez zen Baionako Biltzarra sortuko eta biltzar horrek ez zuen euskara baturako proposamenik egingo. Eta oinarri hori gabe, Euskaltzaindiak ez zuen, Koldo Mitxelenaren zuzendaritza erabakigarriaren pean, Euskara Batua taxutuko» (18. or.). Eta aurrerago: «[Gabriel Arestiren] *Harri eta Herri* izan zen euskara batua eraiki genuen belaunaldiko idazle askok euskaraz irakurri genuen lehen liburua. Gure lehen euskal liburua, *h*-a normal erabiltzen zen liburu bat izan zen. Liburu hori 1964an argitaratu zen, Baionako Biltzarreko proposamenak baino urtebete lehenago» (22. or.)
2. Mitxelenak berak aitortu zuen, batuaren lehenbiziko irizpideak zehazteko ondu zuen idazkian, 'Ortografia'-n: «Aitortu beharrean gera, orde, mamira bagoaz, euskera ez dela oraingoz sistema bat, diasistema bat baizik, eta diasistema horren itxura batera eldu behar dugula, gero mamia batuko baldin badugu».
3. Juan Garziak honela gogorarazi du *Esaldiaren antolaera* liburuan: «[...] idatzia mintzo naturalaren estilizio artifical bat da. Hizkun-

tza, izatez, mintzatua da, eta mintzamina gizona *sen* berezi bat da, ñabarduraz bete; idazketa, berriz, haren proiektio murriztu bat da, ezinbestean sinplifikatua. Idazkuntza, bestela esanda, teknika landu bat da, eta ez sen espontaneo bat».

4. 'Ortografia'-ren hasieran bertan seinatu zuen Mitxelenak non zegoen orduan beharrik handiena: «Haur eta gazteei euskeraz irakasten baldin bazaie, eta euskeraz irakatsi behar euskera biziko baldin bada, premiakoa da guztiei batera edo bateratsu irakastea. Nahi eta behar dugun batasun hori, lehen urratsetan behintzat, euskera idatziarena, izkribuzkoarena, da. Eta, euskera, idatziaren barrutian, irakaste-lanean dugu beharrenik batasun hori, irakurlearen atseginerako egiten den literatura 'ederrean' baino areago».
5. Artikulu honen egileak itzulia. 2016an, El Gallo de Oro argitaletxeak ele bitan argitaratu zuen *Historias fingidas y verdaderas / Istorioak, alegiazkoak nahiz egiazkoak*, Andres Urrutiak euskaratua, baina ezinezkoa izan da artikulu honetarako eskuratzea.
6. Ezaguna da guztiz, eta Lurdes Auzmendi Aierbek gogorazi digu Txepetxek nola definitu zuen: «... hizkuntzaren ikasketa-prozesu osoa burutu eta edozein hizkuntz funtzio euskaraz betetzeko gaituta daudenak».
7. Gemma Sanginés Saizi harturiko formulazioa, 2018ko apirilaren 1eko *Berria*-n erabilia, 'Kontsumitzaile baldintzatuak' artikuluan: «Administrazioek lan egin lezake euskarazko produktuak ugaritzeko, hizkuntza nagusiaren mendeko dependentzia arintzeko (hor dago norabide bakarreko elebitasunaren gehiegikeria: euskaraz dagoen guztia espainolez ere jarri behar da, baina alderantziz ez) eta hizkuntzaren beharra sustatzeko».
8. Garazi Arrula Ruiz itzultzaile eta ikertzaileak «buruko itzulpena» dabil autoitzulpenaz egiten ari den tesian, eta Helena Tanqueiro Barzelonako Unibertsitate Autonomoko irakasle eta ikertzaile arlo honetan aitzindariak, berriz, «autotraducción *in mente*».
9. Itzulpenari egotzen zaion arrotasun/arrozkeria horren erakusgarri, Juan Garziak Ibon Egañari elkarrizketa batean esaniko hau: «Alemanez, Shakespeareren sonetoen itzulpenak bertako literatura dira. Gurean, Axularrenak itzulpenak dira».
10. «... orainsu arte oso itzulpen gutxi izana da beste puntu ahul bat. Beste hizkuntzetan irakurri ditugu, halabeharrez, maisu-lan klasiakoak eta garaikideak [...]. Irakurri dugun ia literatura guztia euskara ez den beste hizkuntza batean jaso dugu, eskolan irakatsi ziguten hizkuntza bakarrean bereziki.

Umetan hobeto identifikatzen nuen gaztelaniaz irakurtzen nuen euskaraz irakurritakoa baino. Gaztelaniaz irakurtzen nuena bat

zectorren entzuten eta hitz egiten nuen gaztelaniarekin. Euskaraz irakurtzen nuen apurra ez zectorren bat etxeko eta kaleko euskararekin, urruti zeuden elkarrengandik, nahiz irakurtzen nuen hura entzuten eta hitz egiten nuen nire euskalki berean egon.

Euskara ez den hizkuntzaren ezagutza akademikoak eta irakurri dugun ia guztia hizkuntza hartan irakurri izanak itzultzaile mental izatera behartu gaitu».

11. Gorka Erostarbek Bernardo Atxagari *Berria*-n eginiko elkarrizketa, 2017ko urtarrilean argitaratua, 'Ez da subjektu politikorik sortzen egungo eskoletan' izenburupean.

Bibliografia

- Arrieta Ugartetxea, Joxe Austin (1997): 'Mailak, mahaiak, maiak (eta II)', *Euskaldunon Egunkaria*, 1997-04-04.
- Atxaga, Bernardo (2017): 'Ez da subjektu politikorik sortzen egungo eskoletan', *Berria*, 2017-01-08.
- Auzmendi Aierbe, Lurdes (2012): 'Euskaldun berri / Euskaldun zahar / Euskaldun oso', in Fernando García Murga eta Nerea Madariaga Pisano (argk.): *Hitzen artean. Axun Aierbe gogoan*, UEU, Bilbo.
- Cano Jauregi, Harkaitz (2017): *Eztabaidak literaturarekin XXI. mendean zikloko mahai-ingurua*, 2017ko otsaila [hemendik berreskuratua: <https://labur.eus/DdyyD>].
- De Otero Muñoz, Blas (1980): 'Poesía y palabra', in *Historias fingidas y verdaderas*, Alianza, Madril.
- Garzia Garmendia, Juan (2015a): *Esaldiaren antolaera. Funtzio informatiboak gako*, EHU, Leioa.
- (2015b): 'Egitea da kontua, garrantzi ikaragarria balu bezala', *111 Akademia* bloga [www.111akademia.eus/111-aldizkaria/erreportajeak/2015/07/27/juan-garzia-garmendia-egitea-da-kontua-garrantzi-ikaragarria-balu-bezala-2].
- Lertxundi Esnal, Anjel (2017): *Demagun ehun urte barru. Hizkuntza gutxitu bateko idazle*, EIZIE, Donostia.
- Mitxelena Elissalt, Koldo (1968): 'Ortografia', *Euskera* 23: 203-269.
- Sanginés Saiz, Gemma (2018): 'Kontsumitzaile baldintzatuak', *Berria*, 2018-04-01.
- Sarasola Errazkin, Ibon (2016): *Bitakora kaiera*, Erein, Donostia.

- Tanqueiro, Helena (2011): 'Sobre la autotraducción de referentes culturales en el texto original: la autotraducción explícita y la autotraducción *in mente*', in Xosé Manuel Dasilva eta Helena Tanqueiro (argk.): *Aproximaciones a la autotraducción*, Academia Editorial del Hispanismo, Vigo.
- Villasante Kortabitarte, Luis (1970): *Hacia la lengua literaria común*, Luis Eleizalde bilduma, 1. liburukia, Editorial Franciscana Aránzazu, Oñati.
- (1988): *Euskararen auziaz*, Luis Eleizalde bilduma, 9. liburukia, Editorial Franciscana Aránzazu, Oñati.
- Zuazo Zelaieta, Koldo (2005): *Euskara batua. Ezina ekinez egina*, Elkar, Donostia.